

Atzerrirako salmentak euskal industriaren fakturazioaren %28 izan ziren 2007an


Ekoizpen faktoreen ordainsaria horrela banatu zen: lanarentzat %53 eta kapitalarentzat %47

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industri sektoreak atzerrira 17.400 milioi balioko esportazioak egin zituen, salmenten %28. Euskal Industriaren salmentak 62.000 milioi izan ziren 2007an; %36 barne-merkaturako eta beste horrenbeste estatuko gainerako.

Euskal industriaren ekoizpenaren %69 bitarteko kontsumoak dira, %2 zerga garbiak eta gainerako %29 sortutako balio erantsia.

Balio erantsiaren banaketa hau da: %53 lan-faktorearen ordainsaria; %32 enpresa-soberakina eta gainerako %15 kapitalaren balio-galeraren, amortizazioaren, horniketa.

1. grafikoa. Industri sektoreko ekoizpenaren eta balio erantsiaren banaketa. 2007 (%)



Iturria: Eustat

Euskal AEko industriaren sektorearen balio erantsiak %6,0ko hazkundera izan zuen 2007an. Batez bestekoaren gaineratik hazi diren industri sektoreak hauek izan dira: metalurgia eta metalezko gaiak, metalezko eta ez-metalezko meak, garraio-materiala eta ez-metalezko industria.

Industri sektoreak %1,8ko enplegu-hazkundera izan zuen 2007an; hazkunde hori nagusiki metalurgia eta metalezko gaietan (%5,2), beste manufakturetan (%3,8) eta material elektrikoan (%2,8) izan zen. Bestalde, kautxu eta plastikoan 700 enplegu galdu ziren (%-3,8). Azken hamar urteetako (1997-2007) balantze moduan, industri sektorean berrogeita hamar mila pasa enplegu gehiago ditugu, 1997ko 202.088tik 2007ko 255.294ra.

1. koadroa. Industriako aldagai nagusiak. Euskal AE. Uneko prezioak.(milaka €)

Uneko prezioak	2006	2007	Δ %
Landunak	250.862	255.294	1,8
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	16.624.164	17.615.267	6,0
Ustiapeneko soberakin gordina	7.582.819	8.247.568	8,8
Egindako inbertsioak	2.680.690	2.598.755	-3,1
Amortizazioak	2.615.136	2.685.622	2,7
Negozio-zifrak	57.760.863	62.025.278	7,4
Ustiapen-kontsumoak	33.669.438	36.549.668	8,6
Kanpo-zerbitzuak	7.639.109	8.148.591	6,7
Lagileria-gastuak	9.041.345	9.367.699	3,6
Zergen aurreko emaitzak	4.525.347	5.183.615	14,5
Cash-Flow-a	7.140.483	7.869.237	10,2

Iturria: Eustat

2007an, Euskal AEko industri bilakaeran, hauek izan dira alderdi aipagarrienak:

- Negozio zifra %7,4 hazi zen 2007an aurreko urtearen aldean.
- Industri balio erantsiaren hazkundera Euskal AEko sektore pisutsuenen hazkundera bermatu da: metalurgia eta metalezko artikulak (%13,1), garraio-materiala (%9,3), eta ez-metalezko industria (%7,6). Hazkunde negatiboak izan dituzte kimikak (%-13,3), petrolio fintzeak (%-6,5) eta kautxu eta plastikoak (%-1,6).
- Ustiapeneko soberakin gordina %8,8 hazi zen; hazkunde-tasa ikusgarriak izan dira metalurgia eta metalezko artikuluetan (%23,7) eta garraio-materialean (%19,6).
- Industriako cash-flowa %10,2 hazi da eta zerga aurreko emaitza %14,5.
- 2007an hazkunderik handienak izandako sektoreak petrolio fintzea (%5,3) eta batez ere metalurgia eta metalezko artikulak, duen pisuagatik (%5,2), zeinak 4.500 pertsona gehiago enplegatu baitzituen. Negatiboan kautxu eta plastikoaren enplegu-galera dugu, %-3,8. Pertsonal-kostua %3,6 hazi zen batez beste.

2007an Gipuzkoak izan zuen balio erantsi gordin nominalik handiena, %7,6. Metalurgia (%16,7) eta garraio-materiala (%12,7) azpimarragarriak dira. Bizkaian %5,4 hazi zen industria eta %4,3 Araban.

Eraikuntzaren sektorean %16,1 hazi zen balio erantsia 2007an

Eraikuntzaren sektoreak BEGren %16,1eko hazkunde nominala izan zuen Euskal AEn. %14,9 Araban, %18,1 Bizkaian eta %12,4 Gipuzkoan.

2. koadroa. Eraikuntzako aldagai nagusiak. Euskal AE. Uneko prezioak (milaka €)

	2006	2007	Δ %
Landunak	96.312	101.437	5,3
Balio erantsi gordina faktore-kostutan	4.996.500	5.799.692	16,1
Ustiapeneko soberakin gordina	1.829.851	2.276.497	24,4
Egindako inbertsioak	347.103	336.036	-3,2
Amortizazioak	246.969	281.875	14,1
Negozio-zifrak	16.615.279	19.766.324	19,0
Ustiapen-kontsumoak	10.215.128	12.593.631	23,3
Kanpo-zerbitzuak	1.614.433	1.988.964	23,2
Lagileria-gastuak	3.166.649	3.523.195	11,3
Zergen aurreko emaitzak	1.424.258	1.733.896	21,7
Cash-Flow-a	1.671.227	2.015.771	20,6

Iturria: Eustat

- Eraikuntzan %5,3 hazi zen langileria, 2006an baino ia bi puntu gehiago. Guztira 100. 000 pertsona baino gehiago, aurreko urtean baino 5.000 gehiago.
- Ustiapeneko soberakin gordina %24,4 hazi zen eta pertsonal-kostuak %11,3.
- Negozio zifra %19,0 hazi zen 2007an.
- Zerga aurreko emaitzak %21,7 hazi ziren; cash-flowa %20,6, eta amortizazioak %14,1.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Iosune Azula Lazkano

Tel.: Faxe:

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp